

Jabetza Intelektuala

Liburutegi birtuala sortu dute Googlek eta AEBetako lau liburutegik

Erredakzioa

Ameriketako Estatu Batuetako egileen elkarteak jarritako salaketak ahaztu eta liburutegi birtuala sortzeko asmoari eutsi dio Google bilatzaileak. Hainbat liburutegi handitako liburu guztiak eskaneatu eta Interneten jarri nahi ditu, eta dagoeneko AEBetako lau liburutegiren babesas jaso du: Harvard, Stanford eta Michigango unibertsitateetako liburutegiena eta New Yorkeko liburutegi publikoarena. Atzo jarri zuten sarean lehenengo bilduma. AEBetako XIX. mendeko historiaren eta literaturaren inguruko lanak dira sarean jarri zituztenak (<http://print.google.com/>). Horietako batzuk copyright legeen pean daude.

Egile elkarten haserrea eta erabiltzaileen poza

Eztabaida handia sortu da Google Print egitasmoaren harira. Googlek jabego intelektualaren legea bortxatu duela salatu zuten orain aste batzuk Ameriketako Estatu Batuetako egileen elkarteak eta AEBetako Argitaldarien Elkarteak, haserre. Edonola ere, Googlek ez du liburu osoak jaisteko moduan jartzeko asmorik. Kontsultatzeko moduan jarri nahi ditu bakarrik. Liburuak osorik irakur daitezke, testuan bilaketak egin daitezke, eta argitalpen horietako irudiak gorde ditzakete erabiltzaileek, baina ez besterik. «Irakasle garen aldetik, ikaragarria iruditzen zaigu mundu osoko pertsonak lan mardul hauek trukatzeko aukera izatea», adierazi zuen atzo Mary Sue Coleman Michigango Unibertsitateko presidentea. «Iruditzen zaigu gaur sarean jarri ditugun liburuen mailako argitalpenak denon eskura jartzea autoreen, editoreen eta erabiltzaile guztien onerako dela», gehitu zuen. Colemanek esan zuen liburu zaharrei eta orain arte bakarrik liburutegietan irakurri zitezkeenei emango dietela lehentasuna.